



Elkano, 12
20808 GETARIA
feuseelkartea@gmail.com
www.feuse.info

Farmaberti

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA



Ibon Mokorokoa (FEUSE) eta Enrique Ordieres (CINFA) FEUSEren Farmaburua saria ematerakoan

CINFA laborategiko lehendakariak jaso du aurten Farmaburua Saria



Euskararen erabilera normalizatzeko egiten ari den lana eta Farmazia Hiztegiaren berrikuntza eta digitalizazioan eskaini duen laguntza eskertu zitzaion CINFAri

2015eko FEUSE Farmaburua CINFA laborategiko lehendakaria den Enrique Ordiererek jaso zuen elkartearen Batzar Orokorra bukatu zenean. Ibon Mokorokak, FEUSEko lehendakaria, berak luzatu zion sariaren ikurra, behin azpimarratuta laborategiak egin duen lana euskararen erabilera normalizatzeko, bai FEUSEren bilakaeran lagunduz eta baita ere

azken urte hauetan euskararen agerpena laborategi nafarraren materialetan bultzatuz. Gainera Farmazia Hiztegiaren berrikuntza eta digitalizazioa lortzeko laguntza eskertu zion.



zerbitzua eta
lana euskaraz



2015eko Batzar Orokorra

Ekainaren 14an egin zen, Nafarroako Farmazialarien Elkargoan

Aurtengo FEUSEren batzar orokorra Iruñean ospatu genuen joan den ekainaren 14an. Batzarra Nafarroako Farmazialarien Elkargoan egin genuen eta bete-betea egon zen. Hasieran, urtero bezala, elkartearen egoera eta xehetasunen berri eman zen. Baina aurten FEUSEren 20. urteurrena zen eta, gauza berezi bezala, 2002an argitaraturiko hiztegia eguneratu eta digitalizatu egin da. Hauxe izan da, hain zuzen, aurtengo erronka nagusia. Aurkezpen oso polita egin zuen Miren Fuldainek. Han aritu ginen, bururatzen zitzaizkigunekin eta adibide praktikoekin probak egiten.

Ondoren FEUSEren FARMABURUA eman genion CINFARI, hiztegia argitaratzeko emandako dirulaguntza eta euskararen alde eginiko beste hainbat ahalegin direla-eta. Saria Enrique Ordieresek jaso zuen CINFAREN izenean, eta euskaraz hitz batzuk esan zituen saria eskertuz.

Gero, nola ez, bazkალurreko basoerdia hartu genuen Iruñeko alde zaharrean. Bazkaria alde zaharrean izan zen, Anttonenea jatetxean. Beheko solairua guretzat bakarrik prestatu ziguten eta oso gustora egon ginen. Janariak ere ez zuen aitzakiarik.

Eguna bukatzeko, Kike Diaz de Ulzurrun kazetariarekin ordubete inguruko bisita gidatua izan genuen Iruñea ezagutzeko. Txangoa berezia izan zen, hiria eta euskara lotuz. Bitxikeria eta *txaskarrillo* ugari esan zizkigun, berak ohi duen gisan, hitz jario ezin txukunagoaz.

Ea datorren urtean beste horrenbeste egiten dugun!



Batzar Orokorrean (goiko argazkia) elkartean egoera eta xehetasunen berri eman zen. Egunari bukaera emateko, Kike Diez de Ulzurrunen eskutik bisita gidatua Iruñeko tokirik esanguratsunak azalduz.

Farmazia hiztegiaren aurkezpena



<http://www.feuse.info/hiztegia/>

Farmazialariek gure eguneroko zereginetarako behar dugun oinarritzko terminologia biltzen duen hiztegi berria aurkeztu dugu. Hau ez da FEUSEk argitaratzen duen lehen hiztegia. 2002an argitaratu genuen lehenengo Farmazia Hiztegia 2.500 bat hitz jasotzen zituen.

Orain, hiztegi haren bertsio eguneratua eta osatua jarri dugu sarean, corpus berri batean oinarrituta UZEIk prestatu duena, hain zuzen ere. Guztira, euskarazko eta gaztelaniazko 3.642 sarrera biltzen ditu hiztegi berriak, eta 16 atal nagusitan sailkatuak daude sarrera horiek.

Hiztegia edonoren eskura dago Farmazialari Euskaldunen Elkartearen webgunean: <http://www.feuse.info/hiztegia/>. Kontsulta-aplikazioan bilatu nahi den sarrera idatzi ahala, proposamenen zerrenda agertzen zaio azpian erabiltzaileari, lagungarri modura. Aipatutako atal edo sail horien arabera findutako bilaketa ere egin daiteke FEUSEren webguneko hiztegiaren.

Hiru corpus nagusi erabili dira iturri gisa hiztegi hau osatzeko: batetik, 2002an UZEIk FEUSErentzat egindako Farmazia Hiztegia; bestetik, EHUko Farmazia Fakultatean euskaraz irakasten diren irakasgaietako materiala; eta, azkenik, ospitaleaz kanpoko jardueren farmazeutikoan erabiltzen diren arau eta inprimaki nagusien bilduma.

Euskal Herriko Farmazialarien Kontseilua, EHUren Farmazia Fakultatea, Cinfa, DFG, Novaltia eta Nafarco kooperatiba ere partaide izan ditugu FEUSEK hiztegi berria plazaratzeko.



Apirilaren 26an elkartu ginen FEUSEko kideok urteroko udaberriko irteera egiteko. Oraingoan Zumaia aukeratu dugu, herri hau eta Debaren artean dagoen geoparkea ezagutzeko.

Goizeko hamaiketan Kaien elkartu, eta bisita gidatu batetarako itsasontzia hartzea izan zen egin genuen lehenengo gauza. Gure gidariak Gipuzkoako kostari buruz azalpenak ematen zizkigun bitartean, guk bistekin gozatu genuen.

Arroka sedimentarioez osatutako, eta ezaugarri zehatz batzuk dituzten geruzek *flysch* izena jasotzen dute. Hemen, arroka gogor (kareharri, arbel edo hareharri) eta bigunen (tuparri eta buztin) geruzak txandakatzen dira. Iberiar eta europar plaka tektonikoen arteko talkaren ondorioz sortu ziren eta zortzi kilometrotan zehar zabaltzen dira, nahiz eta 200-300 metrotan bakarrik diren ikusgai. Itsasotik kanpo gelditzen diren arroka hauek hain zuzen, higadura na-

Udaberriko irteera:

Zumaiako Flyscha



Zumaia eta Deba artean dagoen geoparkea hurbiletik ezagutzeko aukera izan genuen, gidari baten laguntzarekin.

turala jasaten dute, eta horren ondorioz jasotzen du *flysch*ak hain ezaguna den itxura espezifiko hori.

Zumaiako *flysch*aren azalera mun-dukiko onenatarikoa da, eta hemengo in-

gurumen bitxian azken 100 milioi urteetan gertatu diren aldaketak aztertu daitezke: krisi biologikoak, ingurune eta klima aldaketak, katastrofeak... dena arroketa *idatzita* dago eta zehatz mehatz *irakur* ditzakete geologian adituek, irekitako liburu bat balitz bezala. Horretarako milioika urteetan zehar itsasoan sedimentatzen diren organismoen fosilak ere ikus daitezke hemen, eta hauek ere munduaren historia xehetasunez ikasten laguntzen digute.

Kaira itzuli eta itsasontzitik irten ondoren, Zumaiako leku ezagunenak ikustera joan ginen, San Juan iturria, San Telmo ermita eta parrokia adibidez. Azken honetan gainera, bertako gidari batekin elizaren historiaz eta pasarteez hitz egiteko aukera eduki genuen.

Ederki gosetuta herriko jatetxe ezagun batera joan ginen bazkaltzera. Kontu kontari ugariekin amaiera polita eman genion egunari mahaian eserita, Zumaia eta Deba arteko kostaren eder-tasunaz eta historiaz liluratuta.



Uda eta medikamentuak

PEDRO ITURRIA SARASIBAR

Nafarroan, beste eskualde askotan gertatzen den bezala, zenbait udalditan bat-bateko tenperatura aldaketak gertatzen dira, lagun askori erasaten dioten egun batzuetako bero-boladak. Bero horren eragina, eskuarki, arina da, baina inoiz lagunen bat larri gaixotzen da eta arin-arin ospitaleratu behar izaten zaio.

Bero-boladetan bi arazo beldurgarriak gerta daitezke: akidura-deshidratazio sindromea eta bero-kolpea.

Akidura-deshidratazio sindromea metabolismo hidrosodikoaren aldaketaren ondorioz gertatzen da. Delako aldaketa izerdi asko botatzeak eragiten du batez ere, eta egun gutxi pasatu ondoren agertzen da.

Bero-kolpea termorregulazioaren hondatze akutuaren ondorioz gertatzen da. Urgentzia mediko larria da zeren berehala azaltzen baita (1-6 ordu) eta azkar tratatzen ez bada, heriotza eragin ahal izaten baitu (24 ordu pasatu baino lehen).

Nahiz ikusita egon medikamentuen kontsumoak ez duela kausazko loturarik bero-kolpearikin, zenbait medikamentuk eta organismoaren mekanismo egokitzailerek elkarri eragiten diote kanpoko tenperatura altua denean. Medikamentu horiek okerrago ahal dituzte bero kiskalgarriak (beroak berak edo beroaren eraginpean denbora luzez egoteagatik) eragindako ego-

Adineko gizon-emakumeak dira bereziki ahulak zeren egarria sentitzeko gaitasuna makalduta baitute. Halaber, metabolismo hidro-sodikoaren homeostasia ez dute behar bezala kontrolatzen. Bestalde, transpirazioaren bidez lortzen den termorregulazio-gaitasuna ahuldu egiten zaie.


era patologiko larriak (akidura-deshidratazio sindromea eta bero-kolpea).

Akidura-deshidratazio sindromea eta bero-kolpea larriagotzen duten medikamentuen artean badira diuretikoak, hanturakontrako ez esteroideoak, angiotentsinaren entzima bihurtzailearen inhibitzaileak, angiotentsina IIren hartzaileen antagonistak, arritmiaren aurkakoak, biguanidina eta sulfamidak, betablokeatzaileak, etab. Beste zenbait medikamentuk hipertermia eragin ahal izaten dute (tenperatura-baldintza normaletan zein bero boladetan): neuroleptikoak eta agonista serotoninergikoak esaterako. Beste batzuek, hala nola hipertentsioaren aurkakoek, anginakontrakoek eta esnealdiak aldatzen dituzten medikamentuek beroaren eragina larriagotu ahal dute.

Era berean, kontuan hartu behar dugu eta pazienteoi jakinarazi, zenbait kosmetiko, koloratzaile eta lurrinez gain, medikamentu askok fotosentsibilitate-erreakzioak eragin ditzaketela, hau da, erradiazio ultramore edo ikusgaiaren dosi eskuarki ez kaltegarriari larruazalaren erantzuna ezhoikoa edo gehiegizkoa medikamentu horiek bihurtzea (BAT 2009, 7.liburuki, 3 zenb., Marta Irujo Lizaur, FEO Nafarroa).

Fotosentsibilitatea bi modutan ager daiteke, fototoxikotasuna eta fotoalergia. Lehen fotosentsibilitate-erreakzio guztien %95a da eta emate sistemikoan agertzen da batez ere. Bigarrena, berriz, emate topikoan azaltzen da. Emate sistemikoan fotosentsibilitate-erreakzioak eragin ditzaketen farmakoak anitz dira, esaterako, aknearen aurkakoak (isotretinoina), arritmiaren aurkakoak (amiodarona), kinolona (ziprofloxazino, levofloxazino), tetrziklinak (doxiziklina), diuretikoak (furosemida, hidroklorotiazida), hanturakontrako ez esteroideoak (naproxeno), antineoplasiakoak (metotrexato), sexu-hormonak (etilestradiol) etab.

Bistakoa da farmaziara etortzen zaizkigun pazienteoi argibide eta aholku asko eman behar dizkiegula. Lagunduko ahal diegu udaldi zorientzua pasatzen!



Adineko gizon-emakumeak, bularreko umeak, haurrak, paziente kronikoak eta beste lagunen beharrea dauden pertsonak dira gizatalderik ahulenak bero handia egiten duenean.